

BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA SAILA

3550

EBAZPENA, 2020ko abuztuaren 11koa, Hezkuntzako sailburuordearena, zeinaren bidez ebazten baita itunpeko sareko ikastetxeei eta Euskal Autonomia Erkidegoan dauden unibertsitatez kanpoko ikastetxeekin estatutu- eta erregelamendu-harremanak dituzten erakundeei eta federazioei eginiko deialdia, baliabide digitalekin irakasteko eta ikasteko Sare_Hezkuntza Gelan izeneko berrikuntza-proiektuak gara ditzaten 2020-2021 eta 2021-2022 ikasturteetan.

Hezkuntzako sailburuaren 2020ko maiatzaren 5eko Aginduaren bidez, dei egin zitzaizen itunpeko sareko ikastetxeei eta Euskal Autonomia Erkidegoan dauden unibertsitatez kanpoko ikastetxeekin estatutu- eta erregelamendu-harremanak dituzten erakundeei eta federazioei, baliabide digitalekin irakasteko eta ikasteko Sare_Hezkuntza Gelan izeneko berrikuntza-proiektuan parte har zezaten 2020-2021 eta 2021-2022 ikasturteetan.

Agindu horren 9. artikulua dioenez, batzorde batek aztertu eta ebaluatuko ditu aurkeztu diren proposamenak, eta agindu horretan ezarriko da batzorde horren osatura. Batzordeak, egokitzat jotzen dituen txosten teknikoen ostean, dagozkion proposamenak egingo dizkio Hezkuntza Berriztatzeko zuzendariari.

Esandako guztiagatik, honako hau

XEDATZEN DUT:

Lehenengoa.– I. eranskinen ikastetxeak hautatzea, 2. artikuluan 4. apartatuak ezartzen duen bezala.

Bigarrena.– Dirulaguntzak ematea II. eranskinen ageri diren erakundeei, kasu bakoitzean zehaztutako zenbatekoarekin.

Hirugarrena.– Dirulaguntzak ukatzea III. eranskinen ikastetxeei, kasu bakoitzean aipatzen diren arrazoiengatik.

Laugarrena.– Aginduaren 15. artikuluan 1. apartatuaren arabera, dirulaguntzak bi zatitan ordainduko zaizkie ikastetxe onuradunei:

a) Lehendabizikoan, hautatutako parte-hartze proiektu bakoitzari dagokion zenbatekoaren % 60; zenbateko hori esleipen-ebazpena jakinarazi eta, gehienez, bi hileko epean ordainduko da.

b) Bigarrenen, gainerako % 40a, deialdiaren aginduaren 15. artikuluan 2. apartatuan aipatzen den justifikazio-dokumentazioa dagokion epean jaso ondoren.

AZKEN XEDAPENA

Ebazpen honen kontra, gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuordeari, hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko abuztuaren 11.

Hezkuntza Berriztatzeko zuzendaria,
LUCÍA TORREALDAY BERRUECO.

2020ko irailaren 9a, asteazkena

I. ERANSKINA

2020-2021 IKASTURTEAN SARE_HEZKUNTZAN PARTE HARTUKO DUTEN IKASTETXEAK

Deialdia	Kodea	Ikastetxea
Indibiduala	014575	Sociedad Cooperativa de Enseñanza El Regato de Baracaldo COENBA
Indibiduala	014778	CD San Juan Ikastetxea
Indibiduala	014531	CPEIS Berakruz
Kristau Eskola	014754	CPEIPS Santísima Trinidad HLBHIP
Kristau Eskola	014800	CPEIPS Franciscanas de Montpellier HLBHIP

2020ko irailaren 9a, asteazkena

II. ERANSKINA

SARE_HEZKUNTZA 2020-21 DEIALDIAN DIRULAGUNTZA JASOKO DUTEN ERAKUNDEAK

Erakundea	Zenbatekoa
Sociedad Cooperativa de Enseñanza El Regato de Baracaldo COENBA	8.000,00 €
CD San Juan Ikastetxea	8.000,00 €
CPEIS Berakruz	8.000,00 €
Kristau Eskola	16.000,00 €

2020ko irailaren 9a, asteazkena

III. ERANSKINA

DIRULAGUNTZA UKATUAK

Kodea	Ikastetxea	Ukatzeko arrazoia
014680	Centro Formativo Diego Berguices - Otxarkoaga (Lanbide Heziketa)	2.1 artikulua
015833	Centro Formativo Otxarkoaga	10. artikulua
014653	CPEI Iparragirre Ikastola HHIP	10. artikulua

IV. ERANSKINA

HELDUTASUN TEKNOLOGIKO EBALUAZIOAN PARTE HARTUZ, MAILAZ IGO BEHARKO DUTEN
IKASTETXEAK

Kodea	Ikastetxea
014754	CPEIPS Santísima Trinidad HLBHIP
014800	CPEIPS Franciscanas de Montpellier HLBHIP